

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ospitaleguneko haurren ebakuntza-gelako egongela berri bati esker, familiek operatu egingo dituzten adingabeen alboan izan ahalko dute

Horrenbestez, paziente eta senideen estresa eta antsietatea murrizten dira, eta baita banantzearen ondoriozko trauma ere

Osteguna, 2016.eko urriak 20

Aste honetatik aurrera, Nafarroako Ospitalegunean ebakuntza egingo dieten adingabeen alboan senide bat egon ahalko da anesthesiatu aurreko prozesuetan; xede horretarako prestatutako ebakuntza-gelaren alboan, egongela berri bat jarri da.

Orain arte, halako aukerarik ez zegoen harreraretoa kirurgiako barrutiaren barnean baitzegoen; beraz, espazio horretan sartzea mugatuta zegoen, eta lan-zirkuitukoak ez ziren pertsonak errespetatu ezinezko ospitaleko higiene-neurriak nahitaez bete behar ziren bertan.

Haurren alboan egoteko gela horrek 14,50 metro koadro ditu, eta bi ohe eta laguntzaileak hartzeko lekua du. Amen 2. solairutik modu independentean sar daiteke bertara, eta operazio ondorengo gunea banatu egin da beiraz hornitutako manpara batekin. Egokitzapen-lan horietarako 20.825 euro xahutu dira.

Gela berri horrekin, Nafarroako Ospitalegunean urtean batez beste operatzen diren 2.150 haurri mesede egingo zaie, eta pazienteen nahiz familiaren kirurgiako estresa eta antsietatea murriztu nahi da. Senideak bertan egotea borondatezko erabakia da nolana ere, eta gelara sartzeko arropa egokia jantzi beharko du: bata, txanoa eta oinetako babesak. Gailu elektronikoak ezin dira sartu, lana eragotzi dezaketelako, eta dokumentu grafikoak grabazioak beste pazienten batzuen edo langileen pribatutasun-eskubidea arriskuan jar dezake.

Neurria hartu da, ildo horretatik familiek azken urteotan egiten ari ziren hainbat eskaerari erantzuteko. Horrenbestez, "Ospitaleratutako Haurren Europako Gutuna" ere betetzen da, Europako Parlamentuak 1986 an onartu zuena (A2-25/86 Ebazpena, maiatzaren 13koa); haren bidez



Nafarroako Ospitaleguneko ama-haurrentzako instalazioen kanpoaldea.

ezartzen da, haurrak ospitaleratuta dauden denbora-tarte guztian gurasoak edo haiek ordezkatzeko dituen pertsona bat haurren ondoan egoteko eskubidea dutela, eta ez ikusle pasibo modura, ospitaleko bizitzaren elementu aktibo modura baizik. Eskubide hori egikaritzeak ez du inolaz ere kaltetu edo oztopatu behar pazienteari jarri beharreko tratamendua.